

MENDEURREN BATZORDEA



BILERAREN AKTA

2008/07/14

Batzordea: Menduurren Batzordea.
Eguna: 2008/07/14
Ordua: Hasiera 18:30 eta bukaera 19:30ak.
Tokia: Kultur Etxea

Comisión: Comisión del Centenario.
Día: 14/07/2008
Hora: Comienzo, 18:30 y final, 19:30.
Lugar: Kultur Etxea

Bertaratuak:
Mikel Alzelai, Kultura Zinegotzia
Begoña Santillan, Iratzarri
Tony Ausserladscheider, Alaitasuna
Errondaila
Asun Alkorta, Iratzarri
Jose Luis Ugarte, Burdinola
Bittor Larraza
Jone Dorronsoro Dorronsoro, kultur-
teknikaria.

Asistentes:
Mikel Alzelai, Kultura Zinegotzia
Begoña Santillan, Iratzarri
Tony Ausserladscheider, Alaitasuna
Errondaila
Asun Alkorta, Iratzarri
Jose Luis Ugarte, Burdinola
Bittor Larraza
Jone Dorronsoro Dorronsoro, kultur-
teknikaria.

Ezin etorria adierazi dutenak:
Sotero Plazaola, Alkatea

Han excusado su asistencia:
Sotero Plazaola, Alkatea

Esan-eginak eta erabakiak:

Temas debatidos y acuerdos adoptados:

1. Orainartekoen balorazioa.

Hitzaldia: Oso ondo joan zen, harrera bikaina ohi bezala eta ezin ahaztu Jose Antonio primerako komunikatzailea dela eta herrian oso ezaguna gainera.

1. Valoración de lo realizado.

Conferencia: Estuvo muy bien; tuvo muy buena acogida y no podemos olvidar que Jose Antonio es un comunicador de primera y muy conocido en el pueblo.

2. Askatasun Eguna.

Irailaren 12an egingo den Askatasun Egunekeo egitaraua finkatu da eta lanak banatu dira. Horrela geratu da egitaraua:

12:00etan: Harrera txistulari eta dantzariekin (Jonek abisatuko die)

12:15ean: Antzerkia: hasi aurretik aurkezpentxo bat egitea komenigarri ikusten da eta Mikel Alzelaiaren esku geratu da lan hori. Antzerki ondoren Domingo Agirrekoei oroigarria ematekotan geratu gara.

12:30ean: Agintarien hitzaldiak: Protokoloa zaindu beharra aipatu da eta hitzaldien ondoren guztiei oroigarriak eta liburua banatuko zaizkie.

13:45ean: Erakusketaren irekiera: bisita gidatua egitea komeni dela aipatu da.

Ondoren Luntxa izango da gonbidatu guztientzat.

2. Día de la desanexión.

Se ha fijado el día 12 de septiembre como el día de la independencia y se han repartido los trabajos. El programa queda así:

12:00: recepción con chistularis y dantzaris (Jone les avisará).

12:15: teatro. Antes de empezar se ve conveniente hacer una introducción y será Mikel Alzelai el que se encargue de eso. Después se ofrecerá al colegio Domingo Agirre un recuerdo.

12:30: intervención de las autoridades. Hay que cuidar el protocolo y tras las intervenciones se les ofrecerá un recuerdo y el libro.

12:45: inauguración de la exposición; conviene hacer una visita guiada.

Después se ofrecerá un lunch a todos los invitados.

MENDEURREN BATZORDEA



BILERAREN AKTA

2008/07/14

Jonek aipatu du Gonbidapen zuzena bidaliko zaiela Batzar Nagusietako Lehendakariari, Aldun Nagusiari, Kultura Diputatuari, Segurako alkateari, Seguraren menpe egondako herrietako alkateei eta Legazpiko zinegotziei. Era berean aipatu du Agorreko Santikutz jaien egitarauan ere egitaraua txertatuko dela.

3. Bestelakoak

Hitza egunkariaren gehigarria kaleratuko dela jakinarazi da baina Alkatetzatik ordainduko dela dagokion kostua. Era berean Jai Egitaraua aprobetxatuko dela orrialde bat eskaintzeko datozen ekitaldiei.

Urriaren 4ko jaialdiaren inguruan aipatu da 19:30ean hasiko dela eta grabatzeko asmoa dagoela. Ostiralean egingo dela entsaio orokorra Kiroldegian bertan, baina irailaren 24an entsaio bat egingo dutela eta Pilotalekua erabiltzekoa aukera izatea eskatu da, gaueko 21:00etan izango litzateke. Berresten da sarrerak irailaren 15ean jarriko direla salgai. Era berean partehartzaileei eskainiko zaien luntxa Pilotalekuan egitea pentsatu dela aipatu da, doana kontrolatuta egon ahal izateko eta egun berean izango denez catering baten bidez egingo dela, dena prest izateko jaialdi amaieran.

Ilintikoak Askatasun Egun inguruko hamabostaldian dendak atonduko dituztela jakinarazi da: alfonbra gorri bat eta pinutxo bat jarriko dute eta eskaparateetan oroigarri bat eta liburu bat ere jar dezatela eskatzea erabaki da, era horretan gainera propaganda eginez.

Liburuari dagokionean azken lanetan ari direla aipatu da, Mertxe Urkiola eta Manolo Salmeron dabilzala buru belarri argazki eta diseinu lanetan. Liburuaren salneurria 20,00 € izatea erabaki da eta inprintako aurrekontua 15.000 €koa izango dela adierazten da (aurrikusitakoa baino dezente gehiago).

Besterik gabe hurrengo bilera irailaren 8an egitekotan geratzen gara.

Jone comenta que se mandarán invitaciones directamente al presidente de las Juntas Generales, al Diputado general, a la diputada de cultura, a la alcalde de Segura, a los alcaldes de los pueblos que dependieron de Segura y a los concejales de Legazpi. Asimismo se añadirá dicho programa al programa de las fiestas de Agorreko Santikutzak.

3. Varios

Se comenta que se publicará el suplemento de Hitza pero el costo lo asumir Alcaidía. Asimismo se aprovechará una página del programa de fiestas para dar a conocer los actos que quedan.

En cuanto al acto del 4 de octubre, comenzará a las 19:30 y se grabará. El viernes habrá ensayo general en el polideportivo pero el día 24 de septiembre habrá otro ensayo que proponen hacer en el frontón a las 21:00 horas. Las entradas se pondrán a la venta el 15 de septiembre. Asimismo se ofrecerá a los participantes un lunch en el frontón; se controlará la asistencia y como será el mismo día se contratará un catering que tendrá todo dispuesto para cuando termine el festival.

Se comenta que los de Ilinti decorarán las tiendas durante la quincena en torno al día de la independencia; pondrán una alfombra roja y un pino; además se les pide que pongan en los escaparates un recuerdo y un libro, para hacer propaganda de los dos.

En cuanto al libro se están ultimando los detalles y trabajan con las fotos y el diseño Mertxe Urkiola y Manolo Salmeron. El precio de venta del libro será de 20,00 € y el presupuesto de la imprenta será de 15.000,00 € (bastante más de lo previsto).

Sin más se da por terminada la reunión. La siguiente será el 8 de septiembre.